Jorralla-Abril
7
Larunbata - Sabado
Bilbao, 1934

Euzkadi

ARPIDE-SARREURRIJA
Bilbao'kua ... ... 6,00 irko. iru hil
Bilbao'atazkua 7,50 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 100,00 " "
Beldayen itunduba

XXII urtia | Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17, 1.° | 234 Idazkutxa | 17.810 Urrutizkiña | 6.655 zenbakija

Egunekua

Jaurdijan

Euzkera garbi-zaliak, "Jaurdija", Parlamentua'ri esaten dautse. Beraz, "Jaurdija" esaten dodan bakotxian, "Parlamentua" diñotala jakin-egixube. Eta aolan, itz bari au, ulertu eziñekua ixan yatzubenik ezin esan ixango daustazube, euzkera garbijan diñotzubetana, erdera garbira itxulita damotzubet-eta.

Orain jakinazo biar dautzubetana, bariz, beste au da: Jaurdi-ixen au, gaur, gu jaurteko (gobernetako) lagijak egiteko an batzen diran aldunak ixaten dabezan ezpayak eta abar emen atatuteko idatzi dodana dala.

卐 卐 卐

Madrid'eko Jaurdijan, aspaldijon, ezpai gogorak sortuten dira. Aurtemingo batzarian, Elexa'ren arturenak zirala-ta ixan ebena, oratiño, gogoren artian gogorenetariko bat ixango zan.

Gogora bakarik ixan ba'litz, ezeguan akatzak bilatzen ibili biarik, ezpayak gogor eta bigun ixaten dira-ta.

Baña gogorez ganera, aztunak eta nabarmenak diranian, gogoretik gartz biguртuten dira, ta gartzetik, iguingari.

Aurtemin Madrid'ko Jaurdija'n gu jaurteko lagijak egiteko "Parlamento" esaten dautsen leku aretan batzen diran aldun batzuk sortu ta ixan eben ezpaya lako ezpayai, guk, moskortijen arteko ezpaya esaten dautsegu, areik bata-bestiai esan eutsezan itz nabarmenak, ardandegijetako moskortijen artian bakarik esan leikezanak dira-ta.

Moskortijen artian, bakarik, esan leikezan itz nabermenok, Madrid'ko Jaurdija'n oguzi ebezan aldunak, "radicalak" eta "socialistak" ixan ziran, Jaurdi aretatik gixartia zuzendu ta "zibilizeu"-egin biar gatubezala diñuenak.

Alvarez Angulo, socialistiak, Perez Rozas, eradikalari, erepublikanu txara dala deituten dautsa, aldun ixatia be, Foronda'ko Markesa'ri zor dautsala-ta.

Bestiak, ostera, ordia emoteko, Alvarez Angulo'k, berak, be, aldun ixatia, eskotarai zor dautsela, erantzuten dautsa. Eta uste bako erantzun onegaz, bata-bestiaren zapi zikiñak eguzkitara atara ebezan, eta ikusi gura ebezen gustijen begi-aureratuta imiñi.

Zozolisto-eradikal min-luze onei jazoten yakena, irakurle, uretako arain gaxuai jazoten yakena jazoten yake: abuak zabaltzen dabezelako, amuak iruntzi, ta araintzalien sarietan jausi; areyuen sarietan, irakurle.

Perez Rozas'ek emon eutsan erantzunak, onen aldeердikidia dan Rey Mora itxartu eban, eta Alvarez Angulo gixagaxuaren kaltez jagitu. Eta pipertuta, erkaldar txarak zirala esan eutsen zozolistuari, txistuba aurpegira jaurtitia lez, Primo de Rivera'ren osperako beste aldi baten oguzi ixan ebazan itzaldijak, eta abar, aurpegi-aurpegira jaurti eutsazan, eta ain zozolisto aureratutzat agertuten zan Alvarez'en "Angulua", Primo Riveratarren nastian sartuta imiñi.

Rey Mora'ren atzalpenak, zozolistuak, gixa-izkeratik mututu egin ebazan, eta abere-antzo arantzaka ta ostikoka imini. Eradikalai zuzenduten eutsezan arantzetan "¡ladrones!" esaten eutsen. Bestiak, ostera, arantzeari biar zan lez erantzuteko, "¡asesinos!" deitu eutsen.

Eta oneik eta areik, zozolisto-eradikalak, olantxe erakutsi ebezan euren azijera-agirijak: ardandegijetako gixaki moskortijak esan oi-dabezan baño be berba nabarmenaguak ezpanetatik bera, adura baxen zikin jausten yakezela.

Arantzalarijon artian galenduben agertuten zana, bariz, Prieto ixan zala esan dauskube. ¡Au lotsagarija!

Ene euzko-aberkide matia, gu euzkotarok jaurten (gobernetan) Madrid'ko Jaurdi'ratuten diran gixontxubak ezpayetan iñarduteko dauken era orek, ¿ez ete-zatuz iguindu, ta ordez, Euzkadi'ren azkatasun-aldez lanak lan egiteko igitu?

Oreik, españarak dirala diñuen oreik, naiz dirala eskumak, naiz ezkerak ixan, makera baten jatorikuak dirala dirudije, ba, euzkotaroi agiñak erakutsi biara dauken gustijetan, alkaraz bustartuten dira-ta.

Prieto eskertar purukatuba, be, Agire'tar Joseba Andoni abertzaliaren Euzko-Araudi-aldezko autarki berezijari aurka egin biar ixan yakanian, Primo de Rivera'ren ordezkari agirikua ixan zan Maeztu'gaz eta abar bustartuta juan zan, ba, ta areik emon eben aldera autarkija emon.

Makera baten umiak, irakurle, euren amearen eruetatik esnia edan biar...

URIBITARTE'TAR IBON.

Euzkotar umien aldez

Udaberri-ipuña

"Ona izan zaite, eta utzi priztientzat erailtzalekeria."
Juan de Dios Peza.

Egualdiaren otzak gezurtatzen bai-digu ere, il onen 21'garenean sartu giñan udaberian.

Udaberia da urtearen zatirik ederena.

Urtearen beste zatiak, udazkena batez ere ederak dira, bakoitzak beren edertasunakin, baña udaberiaren edertasun eta alaitasun bereziak, bizitzak berak sortzen dituanak dira, neguan ilda bezela egon dau izadia aldi onetan berpiztutzen dalako.

Udaberian jayotzen dira zelayetako loreak, zugatzen oriak eta gure biziari ain alaitasun aundia eta ain edertasun bigun samurra ezartzen dioten txoritxoak.

Baña mutiltxo gaizto biotz-gabeak udaberian asi oi dira txori abiak arapatzen eta txorikumiak iltzen.

Zuek, ene ume maitetxuok ez egin orelako ankerkeririk.

Abija dan gauza edera ta maitekora jakin dezazuten, egiazko gertaera au zeuentzat idazten det.

Erekatxo-Bekoa baserian lau neska ta mutiltxo bat zituzten. Koldobika mutiltxoaren izena.

Seme bakara zalako edo, nai zuan gustia egiten oitua zan, eta dana barkatzen zioten bere gurasoak.

Egia esan, egiten zituan okerkeri geyenak, berez gaiztoa izateak baño geldi egon eziñak geyago eragiten zizkion. Geldi egon eziñak eta bere etxekoak egikera gustiak ontzat emateak.

Amar urte baño ez zituan Koldobika'k eta auzo gustian ez zan bera bezelako arikalaririk.

Egun batean, mendiko aizea artzera eriko maistrak ume talde artuta erten zuan. Baña Erekatxo-Bekoa'ko Koldobika'k ikusi zituanean arika asi ta laister aldapak bera, etori ziran bidetik bialdu zituan.

Eskolarantzian, eta etxerantzian, burni-bideko tximistindaren burnizko postiak zituzten ontzitxo zuriak, erderaz aisladores izena dutenak, arika puskatzen zituan.

Berdin bere aureti, igarotzen ziran katu, txakur, olo eta beste gauza bizi gustiak.

Txoriak eta txori-abiak arapatzeko zuan griña beriz esin esan alakoa zan.

Bere eskolako maistrak auxegaitik erakutzi zion Tchecoslovaquia'ko umiak abestutzen duten jolas-abesti au. (1)

Basotxo oren baruan
Ezetz igeri zer daguan?

Basotxo oren baruan
Zugaztxo bat dago.

Zugaztxo oren baruan
Ezetz igeri zer daguan?

Zugaztxo oren baruan
Abitxo bat dago.

Abitxo oren baruan
Ezetz igeri zer daguan?

Abitxo oren baruan
Arantzatxo bat dago.

Arantzatxo oren baruan
Ezetz igeri zer daguan?

Arantzatxo oren baruan
Txoritxo bat dago.

Txoritxo oren baruan
Ezetz igeri zer daguan?

Txoritxo oren baruan
Bioztxo bat dago.

Biozko oren baruan
Ezetz igeri zer daguan?

Biozko oren baruan
Idaztitxo bat dago.

Idaztitxo oren baruan
Ezetz igeri zer diñuan?

Idaztitxo orek auxe diño:
"Ni Jaungoikuarena naiz."

Baña abesti polit au eskolan ikasi aren txoriai bakian lagatzerik ez zuan ikasten.

Berak ukatu egiten zuan baña Laramendi'ko Joseba'k eta Aranberi'ko Imanol'ek esaten zuten egun batean, euren atarian, txapela erantzita "Etxe onetatik erten duten ildako gustien animen aldez: Aita gurea..." eresatzen ari zan eskale zar bateri ere arika eman ziola.

Nik ez dakit au egia izango ete dan. Aranberi'ko Imanol eta Laramendi'ko Joseba mutiltxo egitiak dira, ta ez det uste gezurik esaten dutenik.

Baña Koldobika'k beintzat gaizki baño gaizkiago egin zualako lotsatuta edo, ukatu egiten du.

(Daraike)
ARITOKIETA.

(1) Laborda jaunak poxpoliñentzat abesti onekin zerbait egin nai ba'leu...

Euskera galtzen nor?

Altube'tar Seber euskaltzaiñak ez dirudi bere liburu dontsu ori alperik atera duanik.

Aspaldi ontan euskerari buruz idazten diran artikuluak-eta irakuri, ta guztietan arkituko dezu, aren izena ez bada, aren ikutua ta bultzadatxoa beintzat bai; zorionean.

Kate pisu gogorak, esku ta oin lotu-lotu egiten ginduten kate estuak jo ta autsi dizkigula esan diteke euskal-idazleoi. Askatu egin dizkigula eskuak eta libertade-argitarako bideak zabaldu.

Euskal-idazleak: orain ez da geyago lengorik gertatuko.

Jartzen intzan idazten. Eriko beri emanez euskerazko eskutitxo bat egin nai ba egunkarirako, ta, au istilua! notizirik iñuzenteena adierazteko ere erderatiko itza luma-muturtxora...

—Ene! Pekatu mortala uke euskeraz idazten ari ta erderatiko itz mordoilo bat emen jartzea! Ori iñola ere ez! Ze esango liketek? Ea, goazen iztegira. Eriko beri-idazki txiki bat egiteko ere euskal-iztegia bear! Amabi pezeta txuri kostatzen ordea... Nondik atera?... Ezta bat ere! Ze eromantiko arayo nauk gero ni olakoa! Egin zadan erderaz, eta kartako pezeta bikoa irabaziko diat gaiñera!...

Eta ora, suurpea laiñotzen asiberia dun gure gaste begiargi, biotzamesti, abertzale xintxoa, ora kate astunak autsi eziñik bertan bera lur-jota, bere maiteño kutun euskerari ezin jaraituz.

Euskal-idazleak: ez da geyago olakorik.

Gora askatuta! deadar egin du Altube'k.

Euskeratiko itzez naiz erderatikoz, euskeraz egin zagun guziok dan-dana, itz eta idatzi, lagun artean aditzeko erako euskeraz.

Nork galtzen du euskera?

Euskeraz egin al izanik, erderaz idazten duanak, erderaz itz egiten duanak eta bide batetik naiz bestetik, oretara erameten gaituanak.

Euskaltzaleenik euskaltzaleenak artzen du egunero egunkaririk euskaltzaleena: "El Día", EUZKADI esaterako.

Eguneko beri preskorik jakin nai baldin badu (ta ortarakoxe da izperingia) erderazko albiste ta artikuluak irakuri bearean arkitzen da.

Ora goiz-goizetik erdera euskaltzale gizajoaren buruaren jabe egiñik, nai ta ez.

"Argia,,'k astean bein eta "Luzear" oixiak noizpeinka jartzen dituen bezela, egunerokoak ere euskera eraz garbian balekarzkete beriok, ez litueke ez nik ezagutzen ditudan zenbait euskaltzalek erderazko artikulu ta beriak irakuriko. Oi Euskal-Egunkaria: urutitxo ikusten zaitugu.

Eramu-igandeko "Argia,,'n jarduntxo zailu batean zionez, aterkia zabaltzeko gertu dago norbait... euri eske; premia izaki.

Aterkia zabaltzeko gertu jartzea baiño obe luke ark ere, nere iritziz, (eta beste zenbaitzuek ere bai) obe egingo lukete, ta beren amets eta siñispidearen arauerago, aterkia itxi, galtzarpean artu ta baseriko atarte zabalean sartuko balira, ayentzako lain leku bai bait-da emen, eta baita premi pitin bat ere olako euskaldun eder buru-jantziena gure artean.

Gai interesante askoak erabili dezakete dielakoak, eta euskera eraz naroan erabili ere iñoiz erakutsi izan digutenez. Baiño... aterkia zabaldu ta kaixo motel! A la samurena... Iñork ez entzutekotan esango nieke belari ondora, ori abertzaletasunak eraginda egiten ote duten ala beste zerbaitek.

Itxi aterkiok, eta atozte noizik bein bedere gure artera, euskeraz ere zerbait esatera; alkirik onenak zuentzat dituzue. Atozte.

Nork galtzen du euskera?

Erderaz idazten duanak.

Artu egunkaririk euskaltzaleena; Erietako beriak ikusi. Au lotsagaria! Geyen-geyentsuak erderaz. Zergatik? Or asieran ezagutu degun izperkari gaxteari jazoa gertatzen ote zaye erietako beri-emaileait? Nik ez dakit.

Euskeraz ez dala irakurtzen diote zenbaitzuek.

Ez da egia; sekula baiño asko euskera geyago irakurtzen da gaur.

Eta geyago irakurtzen ez baldin bada, zer irakuririk emoten ez dalako da.

Askoz ere geyago irakuriko litzake, esaterako, erietako beri guziak euzkeraz bakarik argitarako balira.

Gizon eta emakume, guziok gera jakimin; eta, zuek esan nai dezuena; nik neuk, nere eriko idazkirik nabaitzen badet egunkarian, uraxe lenengo irakuri bear izaten det beste guziak utzita.

Eta guziok ikusi izan dituzue sekula euskerarik ez irakuri ez irakuriko ez zuten erdeltzaleak eriko eskutitzak zer dion jakimiñez tarez ta boraz euskerazko karta, euskera garbiegizkoa askotan, irakurtzen edo leetzen .. eta bere garbikeri ta guzti ere ederki ulertzen.

Ume ta ume ez diranai euskeraz irakurtzen irakasteko euskal-ikastolarik onena, merkeena ta zabalena, gaurkoz, eriko euskal-izperkaria koresponsala degu. Egunkari abertzale naiz euskaltzaleetan ez litzake Eskoriatza'tik, Elgoibar'tik, Zestoa'tik, Alegi'tik, Zarautz'tik eta euskeraz egiten dan beste edozein eritatik idazki bat bakara ere argitara eman bear erderaz. Euskal-erietan izperkari euskaldunak; lagun artean euskeraz itz egiten duan izperkari euskaldunak idatzi dezake euskeraz ere; gai danik ez bada, sortu; ori ere ezin bada, egunkariko batek euskarara aldatzeko arazoa artu. Eriko eskola bana jartzea baiño merkeago litzake.

Euskeraren bizierarako ardura aundiko gaya degu au; merezi duala deritzat zerbait pentsatu ta erabaki esturen batzuek artzea.

Ez dakit, ez dakit ez ote geran ari alperik. Adiskideak, onaraiño irakuri didazuen dozenerdi euskaltzale fiñok esaidazue ez ote geran ari alperik. Gure euskerak iraungo ote digu?

Ez dakit. Abertzalean batzar-dei ta azkenengo oartxoetaraiñoko guziak erderaz ikusten ditugun bitartean alperik ari gera. Bayetzik ezin erantzun.

Eusko-abertzaleak salbatu bear euskera eta oyek ere baditudite biurtu dirala igeri gabe gaztel-abertzale.

Euskeraz egin bearean erderaz idazten duanak orexek galtzen du euskera.

LATSUR.

Gazteiz'en

"Euzkerari omena"

Beste askoren artian, eldu giñan Gazteiz'era juan dan igandian. Aberi-Eguna ospatutera, jakiña.

Beste gitxiren artian, goxeko amaikak belutxuago Prinzipe antzokijan gengozan, euzkel-antzezkixuna ikusteko asmoz bertaratuta.

Goizeko 11 ta erdijetan—iñuan Egitaraua'k—"Prinzipe-Antzokian" Euzkera'ri maite-agura. Ta guk, gure izkuntza laztan dogula esan daroagunok, maite-agur oretan kide ta baruko ixatia erabagi genduan.

Amaika ta erdijak... eta antzokija utsik. Berogei-berogetamar lagun baño geyago ez gengozan. Odola be sutu egin yakun olako lotsagarikerija ikustian. Iñor bez, iñor bez...

Ta ezta ori bakarik. Beste au da negargarijago. An gengozan gustijak euzkeldunak ixango giñan, aurki. Baña gure inguruan ba-ekijen erdera be, beintzat atzeri-elez ederto berotu euskuezan belarijak. Iguingarija, euzkeldunon erdeltzaletasun zijo bagea...

Aldija aurera, ta jaya asi barik. Olakoren baten euzko-aldun batek adirazo euskun antzezkixuna utzi egiten zala.. txistularijak entzutera juateko. ¿Benetan be, oregaitik? Eztogu uste. Antzokija erdi bete egin ba'zan—egin ba'zan, au lotsagarija!—ospatuko zan bai, jaya. Ordu txara be, ba-ei zan...

Baña, tira. Afatsaldian ¡ederto ospatu zan "Erderea'ri maite-agura...!

Bai ba; erderaz edonok ulertuten dau. Euzkeraz, bariz, geuk iru-lau "iñuzentek" baño ez.

Euzkereari lastef, ez maite-agura, ¡betiko agura...!

ENDAITZ.

FORUA

ERIJOTZA.—Igaro dan astian il-zan, Urutxua'tar Serapi aberkide zintzuaren semia zan Joseba Iñaki gontzontxuba. Tamal-agurian lagunduten dautsegu bere ata-ama atsekabetubai.

EUZKEL-IXENA.—Ondaro'tar Matai ta bere emaste Aberasturi'tar Eupeme'k, alabatxu bategaz getu dabe euren sendija. Aurtxu au besoetan artun ebenak bariz, Aberasturi'tar Beniñe ta Etxabe'tar M. Koldobike ixan zirean, Miren Agurtzane euzkel-ixen politak ezaririk. Ama-alabak ondo aurkitzen dira. Artu neure zorijonik sutsubenak, guraso-amabitxijok.

ELIZKIXUNAK.— Txadona eritarez bete-beterik eguala, ederkiro ospatu zan eguen-gureneko txadonkixuna. Txonizlarija, Karmeldar aba argi bat ixan zan. Ereztasun aundiz atzaldu euskun Kisto'ren gixona ganako maitetasuna. Ibil-deuna, nata irako iru urtian eztan ospatu, iñoizko notiñik geyenagaz egin zan.

—Igaro zan igandian ospatu zan pantzeskaren lekaretxeko txadonan, ileroko txadonkixuna. Txonitza, aspaldijon eririk-eri uskurtzaletasuna zabalduten ibili dan Amunategi'tar Eulali aba ospetsubak egin euskun. Aba oneri nata txonitz eder asko entzun ixan dautsoguzan, igandekua, galurenetarikua ixan zala esan giñake. Zoritonak.

AGURTAU.—Poz-atsegiñez estutu genduan igandian, Bilbao'tik etorita, abertzale zintzuak diran Ondaro'tar Miren eta Arospide'tar Josune neskatil polit eta lirañen eskuak.

ASTE-GURENA.—Eguen-Bariku Guren egunetan Gernika'n ospatu oi-dan ibil-deunan, beste askoren artian "Apostoluek" deritxon Matusalen inguruko ibilgunia be, urten oi-dau. Au ibiliteko baña, basari-mutil indartsubak ixaten dira. Orain-arteko urtietan amar ogerleko ordaindu biar ixaten ixan eben aren, aurten forutarak dobarik ibiliteko batu ziran, eta alantxe ibili be. Erabili dabenak Pinaga'tar Bitoren, Urutia'tar Elazara, Gandarias'tar Pantzeska ,Ibarguengoitia'tar Kepa ta Pantzeska, Idoyaga'tar Pantzeska, Kaltzakorta'tar Anastaki ta Torealdai'tar Joseba morosko erimiak ixan ziran.

IBAI-GANE.

JAKINGARRIJENAK

Basauri'ko Firestone olean zarata txarak dira. Opor edo uelgia egin daroe langilak, lana euki-aren, ainbat langile kanpora jaurtiten dabezalako. Bizkai'ko jaurliaz batu ziran langile batzuk eta oleako ordezkarijak, baña zuzenbiderik eztabe aurkitu. Olea saratuteko, be, prest ei-dagoz Firestone'kuak.

卐 卐 卐

Euzko-Araudijaren gora-berak eztauke amairik. España'ko eskumarakaz eztago gauza onik eta araudi au itoko dalakuan gagoz. Maeztu jakintsu-ixunak loritokeri batzuk esan euzan eta Ceda'ko gustijak euzko-araudijaren kontra jari ziran. Eskumarak, ezkertarak eta sosolistuak, gustijak alkartu dira araudijaren aurka.

卐 卐 卐

¡Mena'ko jatokijak dirala ta eztirala ikengarizko otsak darabilez! Erkoreka'ren ganorabakokeri bategatik dira eztabai oneik. Aldundijak irurogei mila pesetaz lagunduko eutsola udalari arazo oretan esan eban, baña Galano'k diñuenez berak ezeban ezer abindu, Laiseka'k baño. Arek egindu ebanaz zer ikusirik eztauke orain-go aldun-ixunak.

卐 卐 卐

Altos Hornos'eko cock-landoletan dabiltzanak bakiak egin dabez olako nagosijakaz. Oporaldija-egitekotan ziran, baña Valverde jaurliaren esanai jaramon-egiñaz gustija zuzendu da. Langile gustijen autarkiz atondu dabe eztabaida ori.

卐 卐 卐

Bizkai-Buru-Batzarak arpidia zabaldu dau Laramendi'tar Andoni zanaren sendijaren laguntzarako. Abadiano'ko abertzale zintzo onen sendikuak, oindikaren seme txikitxubak dira ta ata-barik geratu dir-an-ezkero, abertzale gustijok lagundu biar dautsegu. Uste dogu Bizkai'ko abertzaliak erakusten emongo dabela euren baruko anatasuna. Arpide au goi-gorakua ixan dedila gura geunke.

卐 卐 卐

Bizkai'ko aldundijan beste aldun-ixun bat geyago eukiko dogu: Sever'tar Purdentsi, eradikala. Ziñegotzija ixan da ta langilien ordez autu dabe.

卐 卐 卐

Santurtze'ko udalatxian onartu ebezan erabagijak dirala-ta, Valverde jaunak uztu eragin dautse endore-ordezko jarlekuba Arribas'tar Miren'i. Lengo batzar baten onartu eben Madrid'eko lagi-etxera euren asaria bidaldutia, eskumaren aldez lar egiten dabelako.

卐 卐 卐

Jemein'go Usarrate'basetxeko Egaña'tar Joseba Andoni etxetik aldenduta eguan eta azkenian erekatxu baten, Artibai'n itota idoro dabe. Samatik soka bat eukan eta ari aztun bat.

卐 卐 卐

Otxangon mendijan oidalako suba ixan da. Irureun arte eder ere ziran, baita ainbat gixelaneko otiak, be. Mila ta bereun peseta inguru galdu dabez Lemonitz'ko biztanliak.

卐 卐 卐

Ateneo-Gipuzkoa deritxon aretuan Irizar'tar Jokin jaunak itzaldi bat egingo dau "Arquitectura vasca en el siglo XVII". Jaun ori oso jakintsuba dan ezkero, zaletasun bixija dago berari entzuteko. Franco (Gabirel)'ek be itzaldi bat egingo dau.

卐 卐 卐

Igandez Poxpoliñen jai edera ixango da. Txistulari-aldra batek joko dauz euzko-eresirik onenak. Eta Tolosa'ko Lizardi-antzezlarijak "Loxintxak" antzeztija antzeztuko dabe.

卐 卐 卐

"El Sol,,'ek diñuanez Largo Caballero, sosolistoen alderdiko aldunen lendakari-ixan danak bere kargu ori alde batera jaurti dau. Sosolistuak guzura dala jardetsi dautse, baña izpaingi orek bariro egiztauten dau len esana. ¿Zer jazoten ete-da?

卐 卐 卐

París'ko akedemi baten Richet jaunak esan daunez, abenda zuriko gixonak getu-biarian gitxitutera duaz. Abenda-orijak ostera turez getuten dira. Olan ba-guaz, abenda-orijak ludiko nagosi ixango dir-alakuan dago jaun ori.

卐 卐 卐

Columbus urijan batzartuko dira Ipar America'ko eskola-arazuetzaz dabiltzanak. Batzar oren buru Roosevelt'en emaztia ixango da. Igazko iralaren asikeretan baserijetako bi mila eskola sartu ziran. Amazortzi mila maxu eskola-barik dagoz. Olan gauzak irauten ba-dira, iru mi-loi ta erdi geratuko dira eskola-barik.

卐 卐 卐

España'ko diru-ministru dan Marraco jaunak itz gogorak esan dautsez administraziño aretan dagozan ezkertarai. Bakotxak bere lekuba itxi dagijala dirautse, bestela jaurtiko dabezala. Erabagi au artu dau bere kontra zerbait egin dabelako.

卐 卐 卐

Valencia'ko oporlarijak asi dira euren oleatera jauten. Tximista-ola batzutakuak ezik, bestiak lanean dabiltz. Orain arte jaurle ixan danak itxi dau bere lekuba. Ordez komisarijo bat juan da.

卐 卐 卐

Ferrol'eko erkaldar kontserbadoriak eztabe ezer gura Maura jaunarekin, onen politika-bidiakaz ez ei-dagoz-eta. Ori dala-ta beste alderdi bat eratuko dabe.

卐 卐 卐

Chemnitz uriko epaliak azkenengo zigoraz kondenau dabe Hans Beirm komunistia. Hitler'tar bat erail ei-eban orain urte bat. Beste batzukaz egin eban gixar-eilketa ori, baña Hans baño eztabe zigortau.

卐 卐 卐

Berlín'eko iru edo lau izpaingi eztira geyago argitalduko. Hamburgo lenago bost il ziran, orain Berlín'en lau. Doistaren egunerokuak txarto dabiltz Hitler'tarak dirala-ta.

卐 卐 卐

France'ko gobernubak irati-bidez [illegible] -egin dautse lateriko otsein gustijai, [illegible] tzat artu dagijezan orain egingo dira eleporma gustijak. Orein bitartez gitxituko dautsez eguneroko ologerak.

卐 卐 卐

La Paz uriko ogeta bost gudari-ikasleк ertzain edo politzijen etxia asaltau dabe. Tiroka asi ziran eta emakume bi era ebezan.

卐 卐 卐

Irlanda'ko lugiñen artian asare bizitza sortu dabe De Valera jaunaren erabagijak. Lugintza-arazuak bariztauteko lagien batzuk egin dabez, baña ostetasun ar dija atzaldu dabe lugiñak.

卐 卐 卐

Siam'go bakaldunak París'era eldu dira. Turin'etik datortz eta Roma'n be egonak dira. Ainbat politiku urten yakeraz geltokira. France'ko lendakarijari agur aldi bat egin dautse. Gaur bazkaldukoz dira Doumergue jaunarekin.

卐 卐 卐

Milan'eko ikusketa tokijak Murillo margolari ospetsubaren lauki erosiko dabe. Lauki ori ibilaldi luziak egin, ostian, jaun aberatz baten eskubetara jausi da.

卐 卐 卐

Atzo il zan Italia'ko fascistaren oletako ospetsubena zan Salvatore du Giacomo. Italia'ko elezaindikua zan. Italia'ko olekari onentzat eukoen eta Mussolini'k asko goralduten eban.

卐 卐 卐

Portugal lateriko gobernubak eta Vaticano'k Doipurubak laster alkaren arteko konkordato bat egingo dabe. Elexiarj ar katasun batzuk emongo yakoz eta Centro Católico deritxon alderdija ezerestuko dabe ostian.

ZARAUZ

ABERI-EGUNA.—Igazi dan igandean Aberi-Eguna zala-ta, 200 ta geigo zaramatar Gazteiz'en ziran. Zarautz'ko bilbotarbear ainbat ezta beste erietara joan beharizan zuten bila. Ta karka-jende orek esango du oraindik, abertzale banaka batzuk besterik ez dirala Zarautz'en. Ia oyek lengo igandean abertzaleak Gazteiz'en ainbat noiz joaten diran beren jayetara, ezta bilbel ta bazkaria nai duan gustiordaintzen badiote ere, ori egiten ere ete dakite-ta.

Oñez ere joan zan mendigoizale talde bat, ostiralean irtenda, Urtzelai'tar Imanol eta Amilibia'tar Koldobika buru zirala. Zorionak gustioi.

EUZKEL-IZENA.—Eizmendi'tar Andoni euzkeltzale jatorak bere sendi bikoña, beste alabatxo batekin geitua ikusi du ta euzkotar onari dagokion bezela, Miren Garbiñe euzkel-izen apain ederak jari diokiote ugutzatzean... Zorionak bere sendiko gustiei, ta batez ere jayo berian ama "Basari" adizkideari. Ia eu bezin euzkeltzale ta abertzale sutsua izaten dan.

ITZ-LAUZ.—Zarauztar zintzo ta euzko-olerkari argia gendun Lizardi zana izparingian argitaratu zitun idazki ederrekin, "Euzkaltzaleak" bazkunak egin duan "Itz-lauz" idazti eder ta apaña, Urangu'tar Sebasten mendigoizaleak dauka salgai. 3,50 laurleko besterik ez dezu ordaindu bear izango, idazti mamitsu au zureganatu nai badezu.

ANTZERKIAK. — Iñoiz nekatzen diran gure antzezlari yayoak, beste antzerki eder bat ari dira gertatzen. "Mari-Soro" du izena ta noiz antzeztuko duten esango degu beste baten.

EPAIKETA.—Beren asmo gaiztoai tiki emanaz abertzalien kalterako gezur amatzen karlatarak baño azkargorik ez. Abertzale talde bat, aldi baterako espetxean ezkutatu nairik egindako alegiñak gaizki atera zaizkate oraingoan. Iritxi zuten amabi abertzale espetxeratzea, baña bi egunetan bakarik egon ziran an, karlatarak min zutela irten ziran.

An luzarogo eukitzerik ezin iritxi zutenean, beste zigoren bat bederik ezarri ziran zien, eta joan dan larunbatez izan zan beriz epaiketa. ¡Amaika gezurrezko salakuntza entzun giñuzen karlataren aberetatik, Uriza buru zutela!

Alperik ordea; piskalak etzuan arikan zigortzeko gai zan utsegiterik abertzaletan eta gustiak azke atera ziran. Zorionak auei.

Eta karlatar tripaminduei goraintzak. Ia urengoan "suerte" obea izaten dezaten.

ZABALA.

ONDARROA

ABERI-EGUNA.—Aurera esaten geran letz geure uri onetan oste andija egon estu itxaroten Aberi Eguna'ri. Bai gogo erantzun be. 150 notin Gazteiz'eratu ziran geure uri onetatik; asko berebiletan; talde bat oñez, eta txirindularijak be ixan ziran. Ain egun edera igaro ondoren poz-pozik gustijok etxeratu giñan.

ERIJOTZA.—Igaro dan asteartian il zan Uriona-barenetxea'tar Jone, emakume abertzale zintzua. Geure samin-agura bere sendijari. G. B.).

TXADONKIXUNAK.— Oste andijakaz ospatu dira geure urijan aste gurenako txadonkixunak. Madariaga'tar Gotzon Pantzeskatar abea ixan dogu izlari.

ARGI DONEA.—Eliz-liburu egoki bat aukeratu naidozu? Argi Donea da gauzadaño esagutzen danik egokijena. Eskatu egijozuez Etxaburu'tar Joseba Miren-mutil gastiari.

OKERAK.

(Euzkeltzale-Bazkuna'kuak.)

Fábrica de escopetas finas de caza. Eizara'ko stizkilu berezijen olea.
Agirre y Bastida
EIBAR. — GIPUZKOA

TXIKORO (ACHICORIA) BAKE

EUZKELDUN TXAPEL OLA
Boinas Elósegui
TOLOSA

FULY Gerrikuak. - Donostia

INGI BILDEGIA
Papelería del Oria
MORAIZ'TAR JOSEBA MIRENA
TOLOSA
Teléfono, 150